e-HIZPIDE
HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN ALDIZKARIA

108. zenb.
XLIV. URTEA
2026 UZTAILA-ABENDUA

ISSN 2530.3287

Euskararen kutxa

Ahoskera eta prosodia euskararen irakaskuntzan. Teoriatik praktikara

Kepa Dieguez Barahona

ORCID: 0000-0003-2390-251X

kepadi@me.com

Artikuluak euskararen irakaskuntzan ahoskera eta, bereziki, prosodia sistematikoki lantzearen beharra aztertzen du. Egilearen arabera, alderdi horiek funtsezkoak dira komunikazio eraginkor eta naturala lortzeko, baina sarritan bigarren mailan geratu dira irakaskuntzan. HEOCaren, EEMBaren, EEMB LOaren eta Euskaltzaindiaren arauen argitan, prosodiaren lanketarako oinarri teorikoak, jarduera-proposamenak eta ebaluazio-irizpideak aurkeztuko dira A1etik C2ra.

Ondorio nagusia da prosodia ez dela berez eskuratzen: berariaz landu behar da, eta eguneroko irakaskuntza-jardueretan integratu, ikasleen ahozko gaitasuna eta komunikazioaren naturaltasuna hobetzeko.

Gako-hitzak
azentua, didaktika, erritmoa, fonologia, intonazioa

1. SARRERA

Euskararen irakaskuntzan, tradizionalki, gramatika, hiztegia eta alderdi soziokulturalak izan dira ardatz nagusiak. Alderdi fonologikoari, eta bereziki prosodiari, bigarren mailako leku bat eman izan zaio historian zehar. Hain zuzen ere, irakasleen prestakuntzan eta curriculumetan, fonologia alderdi linguistikoen azken tokian egon ohi da, eta prosodia, are gehiago, ia ahaztua izaten da (Dieguez 2022). Hala ere, azken bi hamarkadetako ikerketek (Derwing & Munro, 2005, 2015; Field 2019; Hahn 2004; Munro & Derwing 2006) erakutsi dute komunikazio eraginkorrerako ahoskera egokia eta prosodia naturala ezinbestekoak direla, eta, sarritan, beste alderdi batzuk baino erabakigarriagoak direla elkarri ulertzeko.

Zergatik da hain garrantzitsua prosodia? Lehenik, prosodiak (azentuak, intonazioak, erritmoak) informazio pragmatiko eta afektibo handia darama: hiztunaren jarrera, asmoa, jatorria eta baita iritzi-maila ere adierazten du (Cutler et al., 1997). Bigarrenik, prosodiak elkarrizketaren antolamenduan laguntzen du: mintzaldian zehar ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizten ditu, eta elkarrizketaren egitura markatzen du.

CC BY NC ND

Hirugarrenik, prosodia funtsezkoa da atzerriko hizkuntzaren ulermenerako: ikasle batek hots guztiak ongi esan ditzake, baina prosodia okerra badu, jatorrizko hiztunak ulermen arazo handiak izango ditu (Munro & Derwing 2006). Azkenik, prosodiak eragina du hiztunaren pertzepzio sozialean: prosodia egokia duten ikasleak "hobeto" edo "naturalago" hitz egiten dutela hautematen da.

Euskararen kasuan, gainera, arazo zehatz batzuk identifikatu dira, artikulu honen 3. atalean sakon aztertuko direnak: ikasleak maiz kexatzen dira euskaldunok "arinegi" hitz egiten dugula, eta euren erdaren ezaugarri suprasegmentalak (azentua, intonazioa, erritmoa) nagusitzen direla euskaran. Hau da, ikasleek hotsak (segmentuak) ongi esan ditzakete, baina euskal hiztun naturalek ez dituzte ulertzen azentua, intonazioa eta erritmoa erdaren ereduari jarraituz egiten dituztelako. Horren ondorioz, euskara zuzena baina artifiziala, zeharo ez-naturala eta, sarritan, ulergaitza izaten da.

Artikulu honek irakasleei oinarrizko ezagutzak eta tresnak ematea du helburu, eta, bide batez, gogoeta piztea ikas-irakas prozesuak modu praktikoan bideratzeko. Horretarako, artikulua honela egituratzen da: 1. atalean, prosodiaren oinarri teorikoak azaltzen dira (azentua, intonazioa, erritmoa); 2. atalean, curriculum-erreferentziak eta mailaketa (HEOC, EEMB, Euskaltzaindia); 3. atalean, ikasgelan ohikoak diren arazo nagusiak identifikatzen dira; 4. atalean, arazo horiei aurre egiteko sendabideak proposatzen dira; 5. atalean, ariketa-proposamen zehatzak ematen dira maila guztietarako (A1etik C2ra); 6. atalean, ariketa-mota orokorrak nola txerta daitezkeen eguneroko jardunean azaltzen da; 7. atalean, ebaluazio-irizpideak eta estrategiak azaltzen dira; 8. atalean, ondorioak eta etorkizuneko proposamenak; azkenik, bibliografia zabala eskaintzen da.

2. PROSODIAREN OINARRI TEORIKOAK

Prosodia grezierazko prosodia hitzetik dator, "kantua" edo "doinua" esan nahi duena. Hizkuntzalaritzan, prosodiak mintzamenaren ezaugarri suprasegmentalak hartzen ditu barne, hau da, hots indibidualen gainetik doazen ezaugarriak. Hiru zutabe nagusiak azentua, intonazioa eta erritmoa dira, baina beste hainbat osagai ere badaude: tonua, etenak, erritmoa, intentsitatea eta abar (Cruttenden 1997; Hirst & Di Cristo 1998).

2.1. AZENTUA

Azentua silaba baten gaineko intentsitatea handiagoa da; fonetikoki, intentsitate handiagoa, tonu aldaketa eta iraupen luzeagoa izan daitezke. Euskaraz azentua bereizgarria da zenbait hitzetan (Hualde, 1991). Adibiderik ezagunena *basó* (basoa) eta *báso* (edalontzia) hitzen arteko bereizketa da. Hala ere, zein den euskalkia, azentuaren kokapena eta mota aldakorra da.

Mendebaldeko hizkeretan (bizkaiera, gipuzkera mendebaldekoa), [+2, -1] araua nagusitzen da, ezkerretatik hasita, bigarren silaba, eta eskuinetatik hasita, lehenengoa (Txillardegi 1984). Horrek esan nahi du hitz lau silabadunetan (adibidez, *sagardoa*) azentu nagusia bigarren silaban dagoela [+2], eta oihartzuna [-1], azkenengoan dagoela: [*sagárdoà*]. Pluraletan, ordea, [+1, -1] araua nagusitu ohi da; adibidez, *argiak* [*árgiàk*] (Txillardegi 1984). Hitz markatuak [+1, -1] zein diren jakitea komeni da euskalkietan aldaerak egonda ere; adibidez, *kalea* [*káleà*]. Ilari eta Entzi Zubirik (1995) zerrenda bat ematen dute euren liburuaren lehenengo atalean.

Ekialdeko hizkeretan (nafarrera, nafar-lapurtera, zuberera, besteak beste) [+1, -1] araua da nagusi. Hitz lau silabadunetan azentua hirugarren silaban ohi dago: [*errekáko*]; gaztelaniaren "llanak" gogorarazten du. Zubereran, gainera, azentu bereizgarria dute, eta kontrasteak ugariagoak dira.

Euskara batuan, Euskaltzaindiak ez du azentua arautu, baina badirudi [+2, -1] arauaren alde egiten duela, erdialdeko gipuzkeraren ereduan oinarrituta. Hala ere, irakaskuntzan komeni da bi ereduak jakinaraztea, ikasleek euskalkien arteko ezberdintasunak uler ditzaten (Txillardegi, 1984).

2.2. INTONAZIOA

Intonazioa ahotsaren tonuaren gorabeherak dira, eta esaldiaren amaierako tonu-aldaketak funtsezkoak dira (Pierrehumbert & Hirschberg 1990). Intonazioak esaldien esanahia eta mota (baieztapena, galdera, harridura, agindua, mespretxua, etab.) adierazten du. Adibidez:

Hori da (baieztapena: tonu beheranzkoa)
Hori da? (galdera: tonu goranzkoa)
Hori da!! (harridura: tonu zorrotz goranzkoa eta gero beheranzkoa)

Euskaraz, galdegaiaren (fokuaren) intonazioa bereziki garrantzitsua da (Elordieta 2003; Hualde, 2003). Galdegaia izen-sintagma baten barruan azpimarratzen den osagaia da, eta intonazioaren bidez markatzen da. Adibidez:

JONEK ekarri du egunkaria (Jonek ekarri du, ez besteak)
Jonek EKARRI du egunkaria (ekarri du, ez beste zerbait)
Jonek ekarri du EGUNKARIA (egunkaria ekarri du, ez beste gauza bat)

Intonazio hori ongi menderatzea ezinbestekoa da euskarazko komunikazio eraginkorrerako, eta, hain zuzen ere, ikasleek zailtasun handiak izaten dituzte alderdi honetan.

2.3. ERRITMOA

Erritmoa hizketaren abiadura eta pausak dira. Silaben iraupena eta sekuentzien antolaketa denboran zehar hartzen du barne (Patel 2008). Hizkuntzak erritmoaren arabera sailkatzen dira: silaba-erritmoa (frantsesa, gaztelania, euskara), azentu-erritmoa (ingelesa, alemana) eta erritmo moraikoa (japoniera). Euskarak erritmo silabikoa du, gutxi gorabehera, baina badira berezitasun batzuk: bokal tartekatuak, kontsonante-multzoak, eta hitz elkartuen eragina.

Erritmoaren barruan, pausak (edo talde fonikoak) funtsezkoak dira komunikazio argirako. Esaldi batek hainbat talde foniko izan ditzake, eta talde bakoitzak bere intonazio-eredua du. Pausen kokapenak esanahia alda dezake:

Aitak esan zuen gezurra (Aita da gezurra esan zuena)
Aitak esan zuen, gezurra (Aitak hitz egin zuen, baina esandakoa gezurra izan zen)
Ez etorri berandu (Agindua: ez zaitez berandu etorri)
Ez, etorri berandu (Baiezkoa: bai, etorri zaitez berandu).

Hiru osagai hauek (azentua, intonazioa, erritmoa) elkarrekin lan egiten dute, eta ezin dira bereizita landu praktikan, nahiz eta analisi teorikoan bereizten diren.

3. CURRICULUMAK ETA ERREFERENTZIAZKO TESTUAK

Euskararen ahoskera eta prosodiaren irakaskuntzan hiru erreferentzia nagusi daude: HEOC, EEMB eta Euskaltzaindiaren EBAZ 87. araua. Jarraian, bakoitza xehetasunez aztertzen da.

3.1. HEOC (HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN OINARRIZKO CURRICULUMA)

HEOCa da helduen euskalduntzean erreferentzia nagusia; izan ere,

> Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren xedea da euskararen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako gidalerro nagusiak ezartzea eta eskaintzea, HABEk bere jarduera osoan eta HABEren Erregistroan inskribatuta dauden euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentroek, helduen euskalduntzegintzaren jardun didaktikoan, bete beharreko gidalerroak eta obligaziozko erreferentzia-markoa izan ditzaten, nork bere mailan moldatu eta erabili ditzan. (Gonzalez de Txabarri et al., 2021, X. or.)

Curriculum honek lau gaitasun nagusi definitzen ditu: gaitasun linguistikoa, soziolinguistikoa, pragmatikoa eta estrategikoa. Gaitasun linguistikoaren barruan, hiru azpi-gaitasun daude: gaitasun fonologikoa, gramatikala eta lexikoa.

HEOCaren arabera, alderdi fonologikoa maila guztietan (A1etik C2ra) garatu beharreko arloa da, eta zehazki azaltzen dira maila bakoitzean landu beharreko edukiak. Era berean, HEOCak gomendatzen du ebaluazioa jarraitua izatea eta irizpide argiak ezartzea.

HEOCaren indargunea da edukiak mailaka antolatzea eta ariketa-proposamenak ematea. Hala ere, ahulgune bat da prosodiari atal gutxi eskaintzea (azentua eta intonazioa aipatzen ditu, baina erritmoa ia ez) eta adibide praktiko gutxi ematea.

3.2. HIZKUNTZEN IKASKUNTZARAKO, IRAKASKUNTZARAKO ETA EBALUAZIORAKO EUROPAKO ERREFERENTZIA MARKO BATERATUA (EEMB) ETA HAREN LIBURU OSAGARRIA (EEMB LO)

Europako Erreferentzia Marko Bateratua (EEMB) da Europan hizkuntzen irakaskuntzan erreferentzia nagusia. Marko honek fonologia gaitasun linguistikoan integratuta dagoela dio, eta A1etik C2ra maila guztietan garatu beharreko arloa dela.

EEMBak zehazki aipatzen du (Europako Kontseilua, 2005, 142. or.) ikasleak B2 mailan ahoskera argia eta naturala bereganatua izango duela; are, C1 eta C2 mailetan, ikaslea "gai da intonazioa aldatzeko eta esaldian enfasia behar bezala egiteko esanahiaren ñabardura sotilak adieraztearren". Hala ere, EEMBa ere kritikatu da prosodiaren irakaskuntzari buruzko jarraibide praktiko gutxi emateagatik (Field 2019).

Kritika horiek kontuan harturik, aurrerapauso handia eman zen 2020an *Companion Volume* delakoarekin (euskaraz 2022an argitaratu zen EEMB LO). "Ahoskeraren kontrola" arloari dagokion eskala berriro garatu zen "soinuen artikulazioa" eta "prosodia" aintzakotzat hartuz. Zalantzarik gabe, garrantzi handia hartu zuen fonologiak testu berrian eta maila guztietara zabaldu zen. Prosodia gaitasun fonologikoaren erdigunean jarri zen horrela, hiztun natiboaren eredu idealetik ulergarritasunaren eredura igaroz. Antza denez, ohartu ziren ezinbestekoa dela ikasleak ahoskera eta prosodia egokia bereganatzea hizkuntza taxuz ikas dezan.

3.3. EUSKALTZAINDIA: EUSKARA BATUAREN AHOSKERA ZAINDUA (EBAZ) 87. ARAUA

Euskaltzaindiak 1999an argitaratu eta 2026an berriztutako "Euskara batuaren ahoskera zaindua" (EBAZ) 87. araua da euskara batuan oinarrizko erreferentzia ahoskerari dagokionez (Euskaltzaindia, 2025). Arau honek fonemak, hotsak eta haien konbinazioak zehazten ditu, eta euskalkien arteko ezberdintasunak ere jasotzen ditu.

Arauak lau atal nagusi ditu:

1. Bokalak: a, e, i, o, u idatzi bezala ahoskatu: <a, e, i, o, u>; sei bokaleko sistema duten Iparraldeko euskaretan <u>ren ahoskera biak onartzen dira (<u> eta <ü>) hala eskatzen duten hitzetan eta baita euskalkiaren erabilera zainduan ere.
2. Bokal-bilkurak: Bokalak bokalen ondoan daudenean ere idatzi bezala ahoskatuko dira hizkera-maila zainduan: *etxea* <etxea>, *geroago* <geroago>, *mendia* <mendia>, *burua* <burua>.
3. Kontsonanteak : Idatzi bezala ahoskatuko dira hizkera-maila zainduan b, d, f, g, k, l, ll, m, n, ñ, p, r, rr, s, t, ts, tx, tz, x, z.
4. Kontsonante-bilkurak: zenbait talkaren berri.

Araua ezinbestekoa da irakasleentzat, baina ez da nahikoa; irakasleek araua ezagutzeaz gain, nola irakatsi ere jakin behar dute. Horretarako, Andres Alberdiren *Ahoskera* gida

(2014) tresna erabilgarria da. Gida horrek, gainera, audio-fitxategiak ditu, irakasleek ikasgeletan erabiltzeko.

4. ARAZO NAGUSIAK ESKOLAN

Ikasleen eta irakasleen esperientziek, baita ikerketa enpirikoek ere (Lyster 2017; Cenoz & Lecumberri 1999), hainbat arazo nagusi identifikatzen dituzte euskararen ahoskera eta prosodiaren irakaskuntzan.

4.1. ULERMEN-ARAZOAK JATORRIZKO HIZTUNEKIN

Ikasleek adierazi ohi dute euskaldunek naturaltasunez hitz egitean ulermena zaila egiten zaiela. "Euskaldunok arinegi hitz egiten dugu" ohiko kexa da, eta horren atzean prosodiaren pertzepzio-zailtasunak daude: azentua ez identifikatzea, intonazioaren aldaketak ez bereiztea (adibidez, galdegaiaren intonazioa), erritmo azkarrarekin ez ohitzea, eta pausak (talde fonikoak) ez antzematea.

Eragozpen horiek neurtzeko ez da ikerketa sakonik egin, baina gaude euskararen ikasle aurreratuek ere (B2-C1) ulermen maila apala ez ote duten lortzen jatorrizko hiztunen elkarrizketa naturalak entzutean, hotsak ongi esan arren. Arazo nagusia prosodia izaten da: azentua desegokia, intonazioa ez-naturala eta erritmoa motela edo irregularra.

4.2. ERDAREN PROSODIA NAGUSITZEA (TRANSFERENTZIA)

Bigarren hizkuntzaren ikasleek beren jatorrizko hizkuntzaren ezaugarri suprasegmentalak transferitzen dituzte euskarara (Odlin 1989; Major 2001). Fenomeno honi "transferentzia prosodikoa" deitzen zaio. Adibidez:

- Gaztelania-hiztunek: gaztelanian azentua bi silabako hitzetan, askotan, lehenengo silaban izaten da (adibidez, *casa*, *mesa*), eta euskaran [+2,-1] araua behar dutenean, sarritan errorea egiten dute, eta lehenengo silaba azentuatzen dute. Nabarmena adizkietan izaten da (adibidez, **Mikel dátor*)
- Frantses-hiztunek: frantsesak azentua esaldiaren amaieran du, eta euskaran hitz bakoitzak bere azentua duenez, zailtasun handiak izaten dituzte.
- Ingeles-hiztunek: ingelesak azentu-erritmoa du (silaba azentudunak denboratarte erregularretan), eta euskarak erritmo silabikoa (silaba guztiak denbora berean).

Horrek euskara erritmoa irregularra izatea eragiten du. Transferentzia horren ondorioz, euskara zuzena, baina zeharo artifiziala izaten da, euskal hiztun naturalentzat arrotza. Hau da, hotsak (segmentuak) ongi esan ditzakete ikasleek, baina azentua, intonazioa eta erritmoa erdaren ereduari jarraituz egiten dituzte.

4.3. IKASLEEN FRUSTRAZIOA ETA HAUSTURA

Ikasleak konturatzen dira euren euskara "liburukoa" dela, eta ez dutela lortzen euskal hiztun naturalekin komunikazio eroso eta arin bat izatea. Horrek motibazioan eragiten du eta, kasu batzuetan, bertan behera uztera eraman dezake (Dörnyei, 2005). Ikasleek honelako sentimenduak adierazten dituzte: "Hotsak ongi esaten ditut, baina ez didate ulertzen", "Beti esaten didate polikiago hitz egiteko", "Nire euskara artifiziala da", "Inoiz ez dut lortuko euskaldunekin natural hitz egitea".

4.4. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA EZA ETA MATERIAL FALTA

Azkenik, arazo nagusietako bat da irakasleek ez dutela prestakuntza espezifikorik jasotzen prosodiaren irakaskuntzan (Dieguez 2022). Irakasle ugarik ez dituzte ezagutzen Euskaltzaindiaren arauak (EBAZ 87) edo ez dakite nola aplikatu ikasgelan. Gainera, material didaktiko espezifikorik ez dago ia (ariketa-liburuak, audioak, bideoak, etab.). Horrek zaildu egiten du prosodiaren irakaskuntza sistematikoa.

5. SENDABIDEA: PROSODIA IRAKATSI EGIN BEHAR DA

Aurreko arazoek erakusten dute prosodia ezin dela eskuratze automatikoko fenomenotzat hartu, eta are gutxiago bigarren hizkuntza ikasle helduengan. Aitzitik, zehazki irakatsi beharko litzateke, komunikazioan osagai konplexua eta erabakigarria delako (Derwing & Munro, 2015; Field, 2019). Jarraian, sendabide nagusiak proposatzen dira.

- **Segmentaletik suprasegmentalera jo.**

Irakaskuntzan, lehenik, hots-sistema (segmentuak) landu behar da: fonemak, silabak, hitz mailako ahoskera. Behin oinarrizko hotsak menderatuta, orduan jo daiteke azentua, intonazioa eta erritmoa (suprasegmentalak) lantzera. Ez da alferrikakoa prosodia lantzea ikasleak oraindik /s/ eta /z/ bereizten ez baditu.

- **Ikasleen erdaren funtzionamendu fonikoa ezagutu.**

Irakasleak jakin behar ditu ikasleen jatorrizko hizkuntzaren ezaugarri suprasegmentalak eta segmentalak (Odlin, 1989). Adibidez, gaztelania hiztunekin lan egitean, badakigu gaztelanian azentua aldakorra dela, baina tildea erabiltzen dela zein silabari eman behar zaion indarra jakiteko; hori abantaila handia da. Frantsesean, berriz, azken silaban kokatzen da azentua; hori dela-eta, euskararen [+2,-1] araua zaila izaten zaie. Ezagutza horrekin, irakasleak aurreikusi ditzake hutsegiteak eta zuzendu.

- **Prosodiako alderdien zailtasuna eta eskuratze-ordena baloratu**.

Prosodiaren alderdi guztiak ez dira zailak maila berean. Ikerketek hauxe (Major 2001) erakutsi dute:

  - Hasteko, errazagoa dela azentua identifikatzea (pertzepzioa) ekoiztea baino.
  - Intonazioa errazagoa da esaldi laburretan (galderak, baieztapenak) luzeetan baino.
  - Erritmoa da zailena, silaben iraupen zehatzak eskatzen dituelako.
  - Eskuratze-ordena ere kontuan hartu behar da: lehenik azentua, gero intonazioa, eta azkenik erritmoa.

- **Prosodia hizkuntzaren osagai gehigarri gisa integratu.**

Prosodia ez da aparteko multzoa izan behar; beste eduki guztiekin batera landu behar da (Lyster 2017). Adibidez, hiztegi berria irakastean, azentua ere irakatsi; gramatika-edukiak lantzean (aditzak, pluralak), azentuaren aldaketak ere azaldu; elkarrizketak lantzean, intonazioa ere landu.

- **Pertzepzio- eta ekoizpen-jarduera ugariak landu.**

Maila guztietan, pertzepzioa (entzutea eta identifikatzea) eta ekoizpena (hitz egitea) bereiz landu behar dira, eta elkarrekin (Derwing & Munro, 2015). Pertzepzio-jarduerak lehenago etorri behar dira: entzun, identifikatu, sailkatu. Gero, ekoizpena: imitatu, errepikatu, ekoitzi askean.

- **Kontzeptu giltza jakin batzuk eman ikasleei.**

Ikasleek prosodiaren oinarrizko kontzeptuak ezagutu behar dituzte: “azentua”, “intonazioa”, “erritmoa”, “talde fonikoa”, “galdegaia”, etab. Ez da zertan hizkuntzalaritza konplexurik irakatsi, baina kontzeptu hauek ulertzeak ikasleei laguntzen die euren akatsak identifikatzen eta zuzentzen (autokontzientzia metakognitiboa).

- **Jatorrizko hiztun onen ereduak erabili.**

Ezinbestekoa da jatorrizko hiztunen benetako grabazioak erabiltzea (irratia, telebista, elkarrizketak, etab.). Ez da nahikoa irakaslearen eredua soilik. Era berean, irakasleak bere ahoskera eta prosodia zaindu behar ditu, eredu egokia eman ahal izateko.

Sendabide horiek guztiek irakaslearen prestakuntza eskatzen dute, eta material egokien erabilera. Hurrengo ataletan, ariketa-proposamen zehatzak ematen dira.

6. PROPOSAMENA MAILAKA (A1-C2)

Atal honetan, HEOCak ezarritako mailetan oinarrituta, bakoitzaren helburuak, edukiak, ariketa-adibideak eta ebaluazioa aurkezten dira modu sistematikoan. Proposamenak hiru maila-tarte handi bereizten ditu: oinarrizkoak (A1-A2), tartekoak (B1-B2) eta goi-mailak (C1-C2).

6.1. A1 ETA A2 MAILA – OINARRIZKO ESPOSIZIO FONOLOGIKOA

6.1.1. A1 maila

Helburuak:

- Euskararen hots-sistema ezagutzea (bokalak eta kontsonanteak).
- Txistukariak bereiztea (/tz/, /tx/, /ts/, /z/, /s/, /x/).
- Diptongoak eta hiatoak identifikatzea.
- Oinarrizko prozesu fonologikoak ezagutzea (bustidura, gortze-prozesua).
- Oinarrizko intonazioa ulertzea (izen-abizenak, leku-izenak, perpaus bakunak).
- Azentua identifikatzea eta imitatzea.

Eduki zehatzak

- Bokalak: /a/, /e/, /i/, /o/, /u/. Ez dago bokal neutrorik (e) gaztelanian bezala.
- Kontsonanteak: /p/, /t/, /k/, /b/, /d/, /g/, /m/, /n/, /ñ/, /l/, /ll/, /r/, /rr/, /s/, /z/, /x/, /ts/, /tz/, /tx/. Azpimarratu /s/ (s, ts) eta /z/ (z, tz) arteko bereizketa, euskaldunentzat funtsezkoa hizkera batzuetan, ez guztietan.
- Txistukariak: /tz/ (ahoskabea, *hotz*), /tx/ (ahoskabea, *etxea*), /ts/ (ahoskabea, *hatsa*), /z/ (ahostuna, *zaharra*), /s/ (ahostuna, *sagarra*), /x/ (ahostuna, *xerra*). Irakatsi ezpainen eta hortzen kokapena eta ahotsaren bibrazioa.
- Diptongoak: /ai/ (*bai*), /ei/ (*sei*), /oi/ (*oi*), /au/ (*lau*), /eu/ (*euri*).
- Hiatoak: *ahatea* (a-ha-te-a), *bideoa* (bi-de-o-a). Bi bokal ezberdin silaba ezberdinetan.
- Bustidura: *busti* > *buxti.* /s/ > /x/ eta /ts/ > /tx/ bustiduraren bidez.
- Gortze-prozesua: *hondar* bukaeran /d/ > /t/ ahoskabe bihurtzen da; *hondartza* bezala. Baita /b/ > /p/, /g/ > /k/ ere.
- Intonazioa: izen-abizenak: *Jon Aurrekoetxea* (tonu beheranzkoa amaieran); leku-izenak: *Donostia, Bilbo*; perpaus bakunak: *Ni etxera noa* (baieztapena, beheranzkoa).

6.1.2. A2 maila

A1 edukiei honako hauek gehitzen zaizkie

- Palatalizazioa: /is/ > (ix) (*isats* > *ixats*), /in/ > (iñ) (*inurri* > *iñurri*). Euskalkien arabera aldakorra.
- Bokal epentesia: /e/ sartzea errateko errazteko. Adibidez, *latza* baina *latzak* ahoskatzean e laburra /lat̻ak/ > [lat̻eak]. Ez da idazten, baina ahoskatzen da.
- Kontsonante-epentesia: /r/ sartzea zenbait hitzetan: *hirurehun*, l*auretan* (ez *hirurehun* gabe, baina ba *lauretan* normalean).
- Asimilazioak eta elipsiak: *ez dira* > *eztira* (asimilazioa, /z/ > /t/), *ez naiz* > *enaiz* (elipsia, /z/ galdu), *baina* > *baña* (asimilazioa, /i/ galdu, /n/ > /ñ/).
- Hitz luzeen azentu bikoitza: *osasuna* > *osásunà* (azentua bigarren silaban eta azken silaban), *emakumea* > *emákumeà* (azentua bigarren silaban eta azken silaban). Hitz lau silabadunetan, [+2,-1] arauak azentua bigarren eta azken silaban jartzen du, baina hitz luzeagoetan azentu bikoitza ager daiteke.

Maila hauetan ezinbestekoa da oinarrizko gaitasunak ondo finkatzea; bestela, aurreragoko mailetan zailtasunak areagotu egiten dira.

6.1.3. Ariketa adibideak

Entzumen- eta erreprodukzio-ariketak (10-15 minutu, egunero edo astero 2-3 aldiz)

Ariketa-mota	Deskribapen zehatza	Adibidea	Materiala
Hitz-zerrendak entzun eta errepikatu	Irakasleak 8-10 hitzeko zerrendak irakurtzen ditu, ikasleek ozen errepikatzen dute, azentua eta hotsak imitatuz.	*etxe, sagar, mahai, ardo, ume, aita, ama, lagun, eskola, irakasle*	Aurreprestatutako zerrendak
Azentudun silabak identifikatu	Irakasleak esandako hitzetan, ikasleek azentua non dagoen adierazi (hatza altxatuz, paperean markatuz).	Irakasleak "zer dá horí?" esaten du; ikasleek bigarren silaba azentuduna dela adierazi.	Ahozko hitzak
Olerki laburrak buruz ikasi eta errepikatu	4-8 lerroko olerkiak, erritmoa eta intonazioa lantzeko.	"*Etxea, etxe polita, / mendiaren magalean, / lorez josita dago, / udaberrian.*"	Olerkiak paperean
Bideo laburrak azpitituluekin landu	30 segundoko bideoak, ikasleek entzun, irakurri eta imitatu.	Youtube-ko bideo labur bat, non norbait aurkezten den.	Bideoa, azpitituluak

Analisi- eta produkzio-ariketak (15-20 minutu, astero 1-2 aldiz)

Ariketa-mota	Deskribapen zehatza	Adibidea
Azentuaren tokia zuzendu.	Irakasleak azentu okerreko hitzak ematen ditu (adibidez, *irakásle* / *irákaslea*), ikasleek zuzendu.	*Irakásle (oker) / irákasle (zuzen)*
Hitzak sailkatu azentuaren arabera.	Hitz-zerrenda bat eman, ikasleek sailkatu: markatuak [+1, -1] eta markatu gabeak [+2, -1].	*Káleà / Beróà*
Pare minimoak identifikatu.	Pare minimoak entzun (adibidez, *báso*/*basó*), ikasleek esan zer esan nahi duen bakoitzak.	*Báso* (basoa) vs. *Basó* (bota)

6.1.4. Ebaluazioa (A1-A2)

- Pertzepzio-probak: identifikatu azentua, intonazioa.
- Ekoizpen sinplea: hitzak eta esaldi laburrak imitatuz.
- Maila bakoitzaren irizpideak (1. taula ikusi 7. atalean).

6.2. B1 ETA B2 MAILAK

6.2.1. B1 maila

B1 mailan, A2ko edukiak finkatu eta azentua sakonago lantzen da (aditz jokatuen azentua)

- Pluralak azentua mugitzen du: singularrean azentua azken silaban (adibidez, *gizónà*), pluralean azentua lehen silabara mugitzen da (*gízonàk*). Hori ez da beti horrela, baina joera orokorra da.
- Silaba bakarreko oineko aditzek amaieran dute azentua: *datór, dagó, datórkìt*. Hau da, aditz hauek bigarren silaban azentua dute, eta azken silaban (lehen pertsonan, adibidez, *natór* bigarren silaban).

- Aditz jokatuen azentu-aldaketak *ba* eta *ez* partikulekin: *datór* (aditza soilik, azentua azken silaban), *bàdatòr* (*ba* partikularekin, azentua lehen silaban, intonazio berezia), *eztátòr* (*ez* partikularekin, azentua lehen silaban, eta intonazio beheranzkoa). Aldaketa hauek funtsezkoak dira esanahirako.
- *ere* partikularen eragina: *zuré* (zure + ere), *ere* partikulak azentua erakarri ohi du.
- Izen-sintagma konposatuak: *zuré alabà* (zure alaba), *etxéko lanà* (etxeko lana). Konposatuetan, azken osagaiak azentua galtzen du edo bigarren mailakoa izaten da.
- Intonazio galdegaia: galdegaiaren intonazioa (goranzkoa eta gero beheranzkoa) landu: JONEK ekarri du egunkaria (Jonek azpimarratuz, intonazio goranzkoa Jonek silaban, gero beheranzkoa).

6.2.2. B2 maila

(B1eko alderdi guztien finkatzea eta sakontzea).

- Konplexutasun handiagoko egitura fonologikoen menderatzea: hitz elkartuak (*etxekoandre* > *etxékoandre* azentuarekin), esaldi luzeak, mendeko perpausak.
- Intonazioaren bidezko esanahi-ñabardurak bereiztea: adibidez, ironia, mespretxua, harridura, zalantza.
- Testu luzeetan prosodia egokia erabiltzea: irakurketa ozena, aurkezpenak, elkarrizketa luzeak.
- Talde fonikoen erabilera egokia: pausak leku egokian jartzea, esanahia argitzeko.

6.2.3. Ariketa adibideak

B1 maila

Ariketa-mota	Deskribapen zehatza	Adibidea
Elkarrizketak	Binaka, azentua eta intonazioa ereduaren arabera jarraituz. Irakasleak eredua eman dezake lehenik.	A: *Zer egin duzu atzo?* B: *Futbolean jokatu nuen* (futbolean nabarmendu eta ondo azentuatu). Irakasleak zuzentzen du azentua.
Grabaketak	Esaldiak irakurri, grabatu eta modeloarekin kontrastatu; norberaren akatsak identifikatu.	Ikasleak 5 esaldi irakurtzen ditu, grabatu, entzun, eta modeloarekin konparatu. Akatsak idatzi.
Transkripzio fonologiko sinpleak	Intonazioa adieraziz (gorantz/beherantz) transkribatu esaldi laburrak.	*Hori da* ↓ Hori da (beherantz); *Hori da?* ↑ Hori da? (gorantz)
Kurba melodikoak	Esaldi berean, kurba melodiko desberdinak hautatu esanahi desberdinetarako.	"*Hori da*" baieztapen (kurba laua, beherantz); "*Hori da?*" galdera (kurba goranzkoa).

B2 maila

Ariketa-mota	Deskribapen zehatza	Adibidea
Transkripzio fonologiko sistematikoa	Esaldiak fonologikoki transkribatu, azentuaren kokapena zehaztuz.	*Gizona etorri da* -> giZÓnÀ eTÓRri dÀ (azentua maiuskulaz)
Antzekotasun fonikoak	Enuntziatuen artean antzekotasun fonikoak bilatu.	*ez da* eta *ezta* antzekoak al dira? Zergatik?
Talde fonikoak	Esaldiak talde fonikoetan zatitu eta intonazioaren arabera sailkatu.	*Etxera joan nintzen, baina ez nuen inor aurkitu* [Etxera joan nintzen] [baina ez nuen inor aurkitu]
Puntuazio-markak	Ahozko grabazioen transkripzioetan puntuazio-markak jarri (komak, puntuak, galdera-markak, etab.).	Grabazio bat entzun, transkribatu, puntuazioa gehitu.

6.2.4 Ebaluazioa (B1-B2)

- Ekoizpen-probak: elkarrizketak, irakurketa ozena.
- Pertzepzio-proba konplexuagoak: galdegaia identifikatu, jarrera identifikatu.
- Transkripzio eta analisi fonologikoa.

6.3. C1-C2 GOI MAILAK: ESTRATEGIA KOMUNIKATIBOAK ETA DISKURTSO KONPLEXUAK

6.3.1. Helburuak

- B2ko alderdi guztien menderatze osoa.
- Erregistro guztietako intonazio-ereduen erabilera naturala: formala, informala, familiarra, ironikoa, etab.
- Diskurtso konplexuen ekoizpena: hitzaldiak, eztabaidak, elkarrizketa luzeak, prosodia egokiarekin.
- Interpretazio kritikoa: hiztunaren jarrera eta asmoa identifikatzea intonaziotik (adibidez, ironia, haserrea, txantxa).
- Autozuzenketa eta autoebaluazioa: ikasleak bere diskurtsoa grabatu, aztertu, eta zuzentzeko gai izatea.
- Euskalkien arteko ezberdintasunak ulertzea: nola ahoskatzen den etxea gure ohiko hizkeretan, eta horiek ulertzeko gai izatea.

6.3.2. Eduki zehatzak

- Azentuaren aldaerak:+2,-1 eta +1,-1 arauak konparatu, ikasleak bere hizkeraren azentua aztertu.
- Hitz markatuak: *báso*/*basó* bezalako pare minimoak testuinguruetan.
- Intonazio-kurben interpretazioa.
- Jarrera eta emozioak identifikatzea (haserrea, tristura, poza, beldurra, ironia).
- Norberaren diskurtsoen analisia eta zuzentzea.
- Erregistro formala eta informala bereiztea.
- Euskalkien arteko ezberdintasunak ulertzea.

6.3.3. Ariketa adibideak

C1 maila

Ariketa-mota	Deskribapen zehatza	Adibidea
Intonazio-kurben interpretazio kritikoa	Grabazio bat entzun, intonazio-kurbak marraztu, eta interpretatu zergatik erabiltzen duen hiztunak kurba jakin bat.	Albiste bat entzun, hiztunak zergatik erabiltzen duen intonazio goranzkoa puntu jakin batean.
Hiztunaren jarrera identifikatzea	Grabazio desberdinak entzun (pozik, triste, haserre, ironiko), ikasleek jarrera identifikatu intonaziotik.	"Bai, noski" esaldia hainbat intonaziorekin: poza, ironia, haserrea.
Norberaren diskurtsoen analisia	Ikasleak bere aurkezpen bat grabatu du; gero, transkribatu eta prosodia aztertu. Zuzendu eta berriz grabatu.	3 minutuko aurkezpen bat; grabatu, transkribatu, azentua/intonazioa aztertu, zuzendu, berriz grabatu.
Diskurtso konplexuen ekoizpena	Hitzaldiak, eztabaidak, elkarrizketa luzeak prestatu eta aurkeztu, prosodia egokiarekin.	"Klima-aldaketa" gaiari buruzko 5 minutuko hitzaldia, intonazioa eta pausak zainduz.

C2 maila

Ariketa-mota	Deskribapen zehatza	Adibidea
Interpretazio kritikoa	5 minutuko eztabaida bat entzun, hiztun bakoitzaren jarrera eta asmoa identifikatu intonaziotik, eta idatzi txosten labur bat.	Eztabaida politikoa; hiztun bakoitzaren jarrera identifikatu.
Hiztunaren jatorria identifikatzea	Grabazio laburrak (euskalki desberdinak), ikasleek asmatu hiztuna nongoa den, azentuaren eta intonazioaren arabera.	Entzun *ahotsak.eus* webguneko hiztunak.
Diskurtsoa berregituratu prosodiatik	Ikasleari esaldi nahasi bat ematen zaio (pausa okerrekin, intonazio okerrarekin), hark prosodia zuzendu eta esanahia argitu.	*Aitari/ esan diot / zer egingo dudan* (haserrea, ironia, baieztapena)
Testu literarioa irakurri ozen	Olerki edo prosa poetiko bat, prosodia egokiarekin irakurri, grabatu, eta gero aztertu.	Gabriel Arestiren "Nire aitaren etxea" olerkia irakurri: erritmoa, etenak, amaierako intonazioa zainduz. Grabatu, eta gero aztertu norberaren bertsioa modeloarekin konparatuz.
Autoebaluazio eta koebaluazio sistematikoa	Ikasleek binaka euren aurkezpenak ebaluatzen dituzte (prosodia irizpideekin), feedbacka eman, eta gero berriz aurkeztu.	Bikotekideak 3 minutuko aurkezpena ebaluatu du irizpide hauekin: azentuaren kokapena, intonazioaren naturaltasuna, pausak eta erritmoa. Feedbacka eman, eta hurrengo egunean berriz aurkeztu hobekuntzekin

6.3.4. Ebaluazioa (C1-C2)

- Diskurtso konplexuen ekoizpena aztertzea (grabazioa, transkripzioa, autozuzenketa).
- Interpretazio kritikoaren probak.
- Euskalkien arteko ezberdintasunak identifikatzea.
- Autoebaluazio eta koebaluazio sistematikoa.

7. ARIKETA-MOTA OROKORRAK EGUNEROKOAN TXERTATZEA

Maila guztietarako balio duten lau ariketa-mota handi proposatzen dira, ikerketan oinarrituta (Derwing & Munro, 2015; Field, 2019; Lyster, 2017).

7.1. ENTZUTE AKTIBOA (PERTZEPZIOA)

Eredu egokiak entzun eta imitatu. Benetako audioak (euskal irratia, telebista, elkarrizketak, podcastak) eta eredugarriak (irakasleak prestatutakoak) erabiltzea ezinbestekoa da.

Nola egin	Maiztasuna	Materiala
Audioa 2-3 aldiz entzun. Lehen aldiz, zertarako den ulertzeko; bigarren aldiz, prosodia identifikatzeko (non dagoen azentua, intonazioa gorantz ala beherantz, pausak); hirugarren aldiz, imitatzeko.	Astean 2-3 aldiz, 10-15 minutu.	Euskal Irratia (EITB), Hamaika Telebista, podcastak, Youtubeko bideoak.

7.2. ERREPIKAPENA (EKOIZPENA)

Hots, silaba, hitz, unitate eta esaldi mailako praktika sistematikoa. Errepikapena ez da mekanikoa izan behar; eredua ondo entzun ondoren, kontzienteki imitatu.

Nola egin	Maiztasuna	Materiala
Irakasleak eredua esaten du (2-3 aldiz); ikasleek denek batera errepikatzen dute; gero, banaka; azkenik, bikoteka. Errepikapenean, azentua eta intonazioa zaintzea.	Egunero 5-10 minutu.	Aurreprestatutako zerrendak, olerkiak, esaldiak.

7.3. GRABAKETA (AUTOZUZENKETA)

Norberaren ahotsa grabatu eta ereduarekin alderatu. Tresna eraginkorrena da autozuzenketa sustatzeko. Ikasleak bere akatsak entzun ditzake eta zuzentzen saiatu.

Nola egin	Maiztasuna	Materiala
Ikasleak esaldi bat irakurtzen du (edo askean esaten), grabatzen du (telefonoaz, ordenagailuaz), gero ereduarekin konparatzen du, akatsak identifikatu, eta berriz grabatu.	Astero 1-2 aldiz, 15-20 minutu	Ahotsa grabatzeko tresna (telefonoa, ordenagailua), eredu-audioa.

7.4. FEEDBACK ZUZENA

Irakaslearen zuzenketak eta ikaskideen arteko elkarrekintza bultzatu. Feedbacka eraikitzailea izan behar da, eta ahal dela, berehala eman.

Nola egin	Maiztasuna	Materiala
Elkarrizketetan, irakasleak errore prosodikoak zuzentzen ditu, baina ez eten etengabe; bukaeran laburpen bat egin. Ikaskideek ere elkarri feedbacka eman diezaiokete (lehenik, gauza positiboak; gero, zuzentzekoak).	Egunero, baina labur-labur.	Feedback-orria (zer ondo, zer hobetu).

7.5. EGUNEROKO JARDUERETAN TXERTATZEA

Prosodia ez litzateke soilik ariketa espezifikoetan landu behar; eguneroko ikasgelako bizpahiru jarduera-motatan ere txerta daiteke, irakasleak aldez aurretiko prestaketa txiki batekin.

7.5.1. Irakurketa ozena

Testuak ozen irakurri prosodia egokiarekin. Hemen ez da soilik irakurketa zuzena lantzen (hotsak ongi esatea), baizik eta azentua, intonazioa, pausak eta erritmoa.

Erabil daitezkeen testu-motak era askotakoak dira: olerkiak (erritmoa lantzeko), elkarrizketak (intonaziorako), albisteak (formalagoa), ipuin laburrak (narratiba).

Nola egin	Maiztasuna	Zer landu
Irakasleak eredua irakurtzen du (intonazioa, pausak markatuz); gero, ikasleek banaka irakurtzen dute, imitatuz; azkenik, bikoteka irakurri eta elkarri feedbacka eman.	Astero 2-3 aldiz, 10-15 minutu.	Talde fonikoak, pausak, galdegaien intonazioa, amaierako intonazioa (beheranzkoa baieztapenean, goranzkoa galderetan).

7.5.2. Elkarrizketa

Rol-jokoak eta egoera errealak simulatu. Adibidez: kafetegian eskaera bat egitea, lagun bati zita bat proposatzea, telefonoz hitz egitea, medikuarenera joatea, etab.

Nola egin	Maiztasuna	Zer landu
Ikasleak binaka, rolak banatu. Irakasleak aurretik eredu prosodikoa eman dezake (nola eskatzen den kafe bat, intonazio egokia). Gero, ikasleek praktikatu. Irakaslea mugituko da eta zuzenketa prosodikoak egingo.	Egunero, 15-20 minutu.	Galdegaien intonazioa, partikulen (ba, ez, ere) eragina azentuan, hasierako eta amaierako intonazioa, hiztunaren jarrera (pozik, triste, haserre) adieraztea.

7.5.3. Aurkezpenak

Gai baten gaineko hitzaldiak prestatu eta aurkeztu. Hemen prosodia lantzen da maila gorenean: intonazioaren bidez ideia nagusiak azpimarratu, pausen bidez entzuleari prozesatzeko denbora eman, erritmoaren bidez interesa mantendu.

Gaiak honako hauek izan daitezke: nire herria, nire zaletasuna, gaurkotasuneko bat (aldaketa klimatikoa, teknologia, etab.).

Nola egin	Maiztasuna	Zer landu
Ikasleak gai bat aukeratu, 3-5 minutuko aurkezpena prestatu (ez irakurri, bakarrik gakoak). Aurkeztu aurrean. Irakasleak (eta ikaskideek) prosodia ebaluatu: azentua, intonazioa, pausak, erritmoa. Ikasleak grabatu dezake bere aurkezpena eta gero aztertu.	Astero, 30-45 minutu, maila aurreratuetan.	Intonazioa ideiak antolatzeko, pausak entzuleari denbora emateko, galdegaiak azpimarratzeko, bukaerako intonazioa.

Jarduera hauek guztiek eskatzen dute irakasleak aldez aurretik ereduak ematea eta zuzenketa prosodikoa txertatzea, ez soilik eduki linguistikoarena. Baina epe luzera, ikasleen jariotasuna eta komunikazio-gaitasuna asko hobetzen dira.

7.5.4. IKASBIL atariko jarduerak baliatu eta prosodia lantzeko ariketak txertatzea

Hona hemen zenbait eredu, mailaz maila.

A1. Zer egingo duzu asteburuan.
(https://www.ikasbil.eus/eu/jarduerak-fitxa?articleId=16237576)

Jatorrizko jarduerari ahoskera eta prosodia lantzeko proposamena

1- ENTZUN AURRETIK

1.1 Gero pintxo-potera joango naiz lagunekin

Zer egingo duzu euskaltegitik atera eta gero? Aukeratu taulatik zure plana; ondoren, kontatu lagunari.

Zer egingo duzu gero?		**Ahoskera eta prosodia (Irakaslearentzat)**
	☐ Erosketak egingo ditut. ☐ Seme-alaben bila joango naiz. ☐ Pintxo-potera joango naiz. ☐ Autobusa hartu eta etxera. ☐ Footing egingo dut. ☐ ……	[+2, -1] araua: bihàr] Hitz markatuak: [séméa] [jóàn] Aditza unitate bakarra da: [egíngò ditút] [z] ahoskatzen den herrietan, landu daiteke:
	○ *Gero zinemara joango naiz.* ● *Hori zortea! Nik erosketak egingo ditut.* ○ *Nik bihar egingo ditut.*	○

1.1 Landetxe batera

Entzun elkarrizketa eta osatu taula. Adostu erantzunak lagunarekin.

	Josu	**Amaia**	**Ahoskera eta prosodia (Irakaslearentzat)**
Nora doa?/Zer plan dauka?	...	...	Norá doá ...daukà
Zertara?/Zertarako?			

3.2 Osatu elkarrizketa hauek eta egoki ahoskatu zuzentzean, azentua kontuan hartuz.

1.
○ Zer ..... behar duzu gero?
● Lagun batekin gelditu nago, buelta bat *(eman)* .....
2.
○ Nora .....zara oporretan?
● Pirinioak aldera, mendi-buelta batzuk *(egin)* .....
3.
○ Zer egin ..... duzu asteburu honetan?
● Herrira noa, gurasoak *(bisitatu)* .....
4.
○ Zer plan daukazu *(Gabonak)* ..... ?
● Autokarabana bat alokatuko dugu, Alemaniako herri garrantzitsuak *(ezagutu)* .....

https://doi.org/10.54512/ENBC7637

A2. Leku kuttunak.
(https://www.ikasbil.eus/eu/jarduerak-fitxa?articleId=16176559)

Jatorrizko jarduerari ahoskera eta prosodia lantzeko proposamena

1. Aurrejarduera: entzumen aktiboa eta azentuaren hautematea	2. Jarduera nagusia: intonazioaren imitazioa	3. Ahoskera-jarduera osagarria: 'Nolakoa da zure leku kuttuna?'	4. Itxiera: autoebaluazioa eta talde-ebaluazioa
Jarraibideak			
• Entzun bi aldiz elkarrizketa. • Markatu hitz batzuetan azentua eta errepikatu ahoz,	• Entzun Itxasoren erantzunak eta aukeratu hiru esaldi. • Saiatu intonazio bera egiten. • Grabatu eta entzun zure bertsioa. • Konparatu taldekoekin.	• Pentsatu zure leku kuttun bat eta deskribatu ahoz. • Erabili irakasleak emandako adibideak. • Zure ahoskera eta azentua zaindu.	• Entzun zure grabazioa eta erantzun galderei: 'Ulertzen da nire ahoskera?', 'Natural entzuten da?'. • Ondoren, bikotekidearen iritzia entzun.
Baliabideak			
• Audioa. • Transkripzioa.	• Grabagailua edo telefonoa. • Audioa.	• Testu-ereduak. • Koadernoa.	• Grabazioa. • Fitxa txikia.
Denbora			
• 10 minutu.	• 15-20 minutu.	• 20 minutu.	• 10 minutu.
Jarduera-mota			
• Banakakoa. • Talde txikia.	• Taldekakoa.	• Taldekakoa.	• Banakakoa. • Bikotekakoa.

-

B1. Arauen sokan zintzilik
(https://www.ikasbil.eus/eu/jarduerak-fitxa?articleId=16176559)

Jatorrizko jarduerari ahoskera eta prosodia lantzeko proposamena

1. Aurrejarduera: entzumen fono-prosodikoa	2. Jarduera nagusia: intonazioaren imitatu eta alderatu	3. Ahoskera-jarduera osagarria: arau bat azaldu prosodia baliatuz	4. Itxiera: autoebaluazioa eta talde-ebaluazioa
Jarraibideak			
• Entzun bi aldiz audioa. • Lehen aldian markatu azentua eta intonazioa, bigarrenean errepikatu ahoz irakasleari jarraituz.	• Entzun bi hiztunen ahoskera eta intonazioa. • Alderatu erritmoa eta melodia. • Ondoren, saiatu imitazio bat egiten eta grabatu taldean.	• Sortu arau berri bat ('Ezin da...', 'Derrigorrezkoa da...') • Grabatu zure esaldia zainduz intonazioa.	• Entzun zure grabazioa eta pentsatu: 'Ulertzen da nire ahoskera?', 'Erritmo naturala dut?', 'Azentua ondo daukat?'. • Partekatu talde txikian eta entzun iritziak.
Baliabideak			
• Audioa. • Transkripzioa.	• Grabagailua edo telefonoa. • Audioa.	• Koadernoa. • Grabagailua edo telefonoa.	• Grabazioa. • Fitxa txikia.
Denbora			
• 10 minutu.	• 20 minutu.	• 15 minutu.	• 10 minutu.
Jarduera-mota			
• Banakakoa.	• Taldekakoa.	• Bikotekakoa.	• Banakakoa. • Taldekakoa.

B2. Autonomoak
(https://www.ikasbil.eus/eu/jarduerak-fitxa?articleId=31780688)

Jatorrizko jarduerari ahoskera eta prosodia lantzeko proposamena

1. Aurrejarduera: intonazio-markak identifikatzea	2. Jarduera nagusia: ironiazko tonuaren imitazioa	3. Ahoskera-jarduera osagarria: prosodia baliatuta azaldu egoera	4. Itxiera: autoebaluazioa eta feedback prosodikoa
Jarraibideak			
• Azpimarratu intonazioaren gorakada eta beherakada	• Ahoskera ironikoa imitatu eta grabatu.	• Testuko esaldiak berridatzi eta intonazioarekin aurkeztu.	• Entzun grabazioa eta ebaluatu prosodia.
Baliabideak			
• Audioa. • Transkripzioa. • Koadernoa.	• Grabagailua edo telefonoa. • Audioa	• Testua. • Ohar-orriak.	• Grabazioa. • Ebaluazio-fitxa.
Denbora			
• 10-15 minutu.	• 20 minutu.	• 20 minutu.	• 10 minutu.
Jarduera-mota			
• Banakakoa.	• Bikotekakoa. • Talde txikiak.	• Banakakoa. • Taldekakoa.	• Bikotekakoa.

C1. Ondo iraintzen jakinez gero, beti euskaraz.
(https://www.ikasbil.eus/eu/jarduerak-fitxa?articleId=29823529)

Jatorrizko jarduerari ahoskera eta prosodia lantzeko proposamena

1. Aurrejarduera: ironia eta tonu prosodikoa identifikatzea	2. Jarduera nagusia: biraoen prosodia imitatu eta grabatu	3. Diskurtso prosodikoa: sormena eta ahoskera uztartuz	4. Itxiera: autoebaluazioa eta feedback prosodikoa
Jarraibideak			
• Audioa entzun eta markatu haserrerako edo ironia adierazteko doinu-aldaketak. Erabili gorantz/beherantz gezi sinbolo errazak.	• Ahoz berregin testuko esaldiak. Saiatu tonu ironikoa, kolpe prosodikoak eta erritmoa imitatzen. • Grabatu eta alderatu. • Ahoskera ironikoa imitatu eta grabatu.	• Sortu 5 irain original tonu ironiko egokiarekin. • Azaldu ahoz noiz eta nola erabiliko zenituzkeen.	• Entzun grabazioa eta baloratu: ironia lortu al da? erritmoa egokia al da? Azentu markatua? • Jaso bikotearen feedbacka.
Baliabideak			
• Audioa. • Transkripzioa. • Koadernoa.	• Grabagailua edo telefonoa. • Audioa	• Testua. • Ohar-orriak.	• Grabazioa. • Ebaluazio-fitxa.
Denbora			
• 15 minutu.	• 20 minutu.	• 20 minutu.	• 10 minutu.
Jarduera-mota			
• Banakakoa. • Bikotekakoa.	• Talde txikiak.	• Bikotekakoa. • Taldekakoa.	• Banakakoa • Bikotekakoa.

C2. Gauzak bukatzen jakitea.
(https://www.ikasbil.eus/eu/jarduerak-fitxa?articleId=16168629)

Jatorrizko jarduerari ahoskera eta prosodia lantzeko proposamena

1. Aurrejarduera: doinu-aldaketen analisi diskurtsiboa	2. Jarduera nagusia: diskurtso prosodikoa imitatu	3. Ekoizpen prosodikoa: amaitzea bere diskurtsoa	4. Itxiera: autoebaluazioa eta feedback prosodikoa
Jarraibideak			
• Lehen entzunaldian, markatu tonu aldaketak (ironikoa, dramatikoa, introspektiboa). • Bigarren entzunaldian, kokatu adibideak transkripzioan.	• Paragrafo labur bat hautatu eta ahots interpretatiboarekin berreraiki. Tonuaren koherentzia eta esaldi-loturak zaindu. •Grabatu eta alderatu.	• Egin 1 minutuko hitzaldia: 'Nola jakin dugu gauzak noiz amaitu diren?' Intonazio gorabeherak eta erritmo dramatikoa zaindu.	• Entzun zure grabazioa eta baloratu: mezuaren indarra, prosodiaren eraginkortasuna, koherentzia emozionala. • Jaso taldearen feedbacka.
Baliabideak			
• Audioa. • Transkripzioa. • Arkatza edo tableta digitala.	• Grabagailua edo telefonoa. • Audioa. • Aurrez idatzitako paragrafoa.	• Ideia-txartelak. • Grabagailua.	• Grabazioa. • Ebaluazio-fitxa.
Denbora			
• 15-20 minutu.	• 25 minutu.	• 20 minutu.	• 10 minutu.
Jarduera-mota			
• Banakakoa.	• Talde txikiak. • Bikotekakoa.	• Banakakoa.	• Banakakoa • Talde txikiak.

8. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA ESTRATEGIAK

HEOCak mintzameneko zuzentasunaren arloan hiru irizpide ezartzen ditu alderdi fonologikoa ebaluatzeko.

1. *taula. Ebaluaziorako proposamena*

Puntuazioa	Irizpidea	Deskribapen zehatza	Adibidea
1	Mailaz azpikoa.	Ikasleak ez ditu mailan eskatzen diren alderdi fonologikoak lortu. Akatsak sistematikoak dira eta ulermena oztopatzen dute.	A2 mailan, ikasleak ezin ditu txistukariak ondo bereizi, eta *atso* / *atzo* nahasten ditu.
2	Aski mailarako.	Ikasleak mailako edukia gutxienez betetzen du. Akatsen batzuk izan ditzake, baina ez dute komunikazioa oztopatzen.	B1 mailan, ikasleak etxea ongi azentuatzen du, baina batzuetan *emákumeà* > *emakúmea* (azentua oker) esaten du; hala ere, ulergarria da.
3	Mailaz gainekoa.	Ikasleak maila horretakoa baino hobeto egiten du. Ia akatsik gabe, naturaltasunez.	B2 mailan, ikasleak B2ko edukia gainditzeaz gain, C1eko intonazio-ereduak ere erabiltzen ditu.

8.1. EBALUAZIORAKO PROPOSAMENAK

1. Ebaluazio jarraitua: ez bakarrik azken proba baten bidezkoa. Eguneroko behaketa, ariketa txikiak, grabazioak, eta ikaslearen portfolioa erabili.
2. Pertzepzioa eta ekoizpena bereiz ebaluatu: ikasle batek ondo entzun dezake prosodia (adibidez, azentua non dagoen identifikatu), baina ekoizpena okerra izan. Biak ebaluatu behar dira.
3. Autoebaluazioa eta koebaluazioa sustatu: ikasleek euren grabazioak entzun, aztertu, eta puntuatu ditzakete. Ikaskideen arteko elkarrizketetan, elkarri feedbacka eman.

4. Feedbacka espezifikoa eta eraikitzailea: “azentua gaizki” esan beharrean, “hitz honetan azentua bigarren silaban dago, ez lehenengoan” esan. Eta eredua eman.
5. Ebaluazio-irizpide argiak ezarri ikasturtearen hasieran: ikasleek jakin behar dute zer espero den, eta zertan oinarrituko den ebaluazioa.
6. Grabazioen erabilera sistematikoa: ikasle bakoitzak hasieran, erdian eta amaieran grabazio bat egin dezake, aurrerapena ikusteko. Horrek motibazioa ere sustatzen du.
7. Ez ebaluatu fonetika perfektua, baizik eta ulergarritasuna eta naturaltasuna. Helburua da euskal hiztunekin komunikatu ahal izatea, ez hizkuntzalari akademikoa izatea.

9. ONDORIOAK

Artikulu honetan zehar, euskararen irakaskuntzan ahoskera eta prosodiak duten garrantzia eta, aldi berean, duten bazterketa sistematikoa aztertu da. Hainbat ondorio nagusi atera daitezke, bai teorikoak, bai praktikoak:

1. Prosodia ez da automatikoki eskuratzen

   Uste hedatua da prosodia ingurune naturalean murgilduta (euskal hiztunen artean bizi izanda) berez ikasiko dela. Hala ere, frogatu da hori ez dela egia, are gutxiago helduen bigarren hizkuntzaren ikasleengan. Prosodia zehazki irakatsi behar da, komunikazioan osagai konplexua eta erabakigarria delako.

2. Komunikazio eraginkorrerako ezinbestekoa da

   Jatorrizko hiztunarekin komunikatzeko, ezinbestekoa da prosodia egokia izatea. Bestela, hotsak (segmentuak) ongi esan arren, euskara zuzena baina artifiziala, zeharo ez-naturala eta, sarritan, ulergaitza izaten da. Horrek ikasleen frustrazioa eta abandonua eragin dezake.

3. HEOCak maila guztietan eskatzen du alderdi fonologikoaren lanketa. EEMB LO ez da arauemailea, baina aintzat hartzekoa ere bada, “ahoskeraren kontrola” garatuta baitago.

   A1etik C2ra, eduki zehatzak daude fonologiari buruz. Hala ere, praktikan, askotan ez dira bete, irakasleen prestakuntza eza eta material faltagatik. Beharrezkoa da curriculuma ezagutzea eta praktikan jartzea.

4. Arazo zehatzak identifikatu daitezke: transferentzia prosodikoa, ulermen-arazoak, frustrazioa

   Ikasleen jatorrizko hizkuntzaren prosodia transferitzen da euskarara, eta horrek errore sistematikoak sortzen ditu. Gainera, ikasleek ulermen-arazo handiak izaten dituzte jatorrizko hiztunekin, eta horrek motibazioa gutxitzen du. Irakasleek arazo hauek ezagutu behar dituzte eta horiei aurre egiteko estrategiak garatu.

5. Ariketa sistematiko eta anitzak behar dira

   Entzute aktiboa, errepikapena, grabaketa eta feedback zuzena dira lau zutabe nagusiak. Maila bakoitzean, ariketa-motak egokitu behar dira: A1-A2an imitazioa eta antzematea; B1-B2an ekoizpen aktiboa eta diskurtso mailako ulermena; C1-C2an estrategia komunikatiboak eta diskurtso konplexuak.

6. Ebaluazioa jarraitua eta irizpide argiekin egin behar da

   Ez da nahikoa azken proba bat; eguneroko behaketa, grabaketak, autoebaluazioa eta koebaluazioa behar dira. Ebaluazio-irizpide argiak ezarri behar dira ikasturtearen hasieran: zer den 1 (mailaz azpikoa), 2 (aski), 3 (mailaz gainekoa).

7. Irakasleen prestakuntza eta material egokiak falta dira, baina badira baliabideak

   Gai honetan, irakasle askok ez dute prestakuntza espezifikorik, eta materialik ere ez da ugaria. Hala ere, badira baliabideak: Euskaltzaindiaren EBAZ 87, Al-

berdiren gida, Dieguezen proposamena, sareko audioak eta bideoak. Etorkizunean, alor honetan inbertitu behar da: prestakuntza ikastaroak, material didaktiko espezifikoak, ikerketa gehiago.

8. Euskararen prosodia irakasteak euskal kulturaren eta hizkeren aniztasuna ezagutzeko aukera ematen du

   Prosodia irakastean, ezin da euskara batu hutsean irakatsi; euskalkien arteko ezberdintasunak ere azaldu behar dira, eta horrek euskal kulturaren aberastasuna ezagutzeko aukera ematen du.

10. ETORKIZUNEKO PROPOSAMENAK

10.1. ZAINTZE-LANAK (ETENGABEKO LANKETA)

Ahoskera eta prosodia etengabe landu behar diren gaitasunak dira, maila guztietan. Ez dira ahaztu behar maila aurreratuetan ere; are gehiago, orduan landu behar dira ñabardurak eta erregistro desberdinak. Irakasleek etengabeko prestakuntza behar dute alor honetan.

Proposamenak:

- Irakasleentzako mintegiak eta ikastaroak antolatu (adibidez, "Prosodia irakasteko estrategiak").
- Irakasleen arteko lantaldeak sortu, elkarri ariketak eta materialak partekatzeko.
- Irakasle bakoitzak bere ahoskera eta prosodia aztertu (grabatu, aztertu, hobetu), eredu egokia eman ahal izateko.

10.2. IRAUNARAZTE-LANAK (PRAKTIKAN JARTZEA)

Ikasitakoa praktikan jarri eta erabilera errealetan aplikatzea ezinbestekoa da. Irakasleek eredu prosodiko egokia eman behar dute eguneroko elkarrizketetan, eta ikasleei aukera eman behar diete euren prosodia landu eta zuzen dezaten.

Proposamenak:

- Ikasgelan "prosodiaren txokoa" sortu, ariketak eta materialekin.
- Astero "prosodiaren minutu bat" egin: ariketa labur bat, baina sistematikoa.
- Ikasleak animatu euren eguneroko bizitzan prosodia zaintzera (euskal irratiak eta podcastak entzun, euskaldunekin hitz egin, etab.).

10.3. ETORKIZUNEKO IKERKETA-ILDOAK

1. Euskararen prosodiaren eskuratze-ordena ikasle helduengan: zein alderdi errazago, zein zailago, eta zein ordetan eskuratzen diren.
2. Transferentzia prosodikoa euskarara: gaztelania-, frantses-, ingeles-, alemaneta beste hizkuntza batzuetako hiztunen errore zehatzak eta horiei aurre egiteko estrategiak.
3. Teknologia berriak prosodiaren irakaskuntzan: aplikazioak (Praat, Speech Analyzer), sareko baliabideak, AI-a ahoskera zuzentzeko.
4. Prosodiaren ebaluazioa: irizpide argiak, proba estandarizatuak, autoebaluazioa.
5. Prosodiaren irakaskuntza HEOCen integratzea: curriculuma berrikustea eta ariketa gehiago gehitzea.

10.4. AZKEN GOGOETA

Ahoskera eta prosodia ez dira "gehigarri" bat, baizik eta euskararen komunikazio-gaitasunaren muina. Irakasleok ardura handia dugu alderdi hauek sistematikoki lantzeko, ikasleek euskara natural, eroso eta eraginkorrean erabili ahal izateko.

"Euskara batu egoki mintzatua ederra da".

Bibliografia

Alberdi, A. (2014). *Ahoskera*. Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia. https://www.euskadi.eus/euskojaurlaritza/-/liburua/ahoskera/

Cenoz, J. & Lecumberri, M. L. G. (1999). The acquisition of English pronunciation by Basque-Spanish bilinguals. In J. Cenoz & F. Genesee (ed.), *Beyond bilingualism: Multilingualism and multilingual education* (187-206. or.). Multilingual Matters. https://doi.org/10.2307/jj.33169502

Cruttenden, A. (1997). *Intonation* (2. arg.). Cambridge University Press.

Cutler, A., Dahan, D. & van Donselaar, W. (1997). Prosody in the comprehension of spoken language: A literature review. *Language and Speech, 40*(2), 141-201. https://doi.org/10.1177/002383099704000203

Derwing, T. M. & Munro, M. J. (2005). Second language accent and pronunciation teaching: A research-based approach. *TESOL Quarterly, 39*(3), 379-397. https://www.jstor.org/stable/3588486

Derwing, T. M. & Munro, M. J. (2015). Pronunciation fundamentals: Evidence-based perspectives for L2 teaching and research. John Benjamins.

Dieguez, K. (1991). Euskara batua eta Ortoepia. *Zutabe, 26*, 43-60. http://www.irakasbil.eus/mod//didakteka/euskarabatua-eta-ortoepia

Dieguez, K. (2022). Ahoskera eta prosodia euskararen irakaskuntzan*. e-Hizpide, 99*. https://doi.org/10.54512/KRLR9470

Dörnyei, Z. (2005). *The psychology of the language learner: Individual differences in second language acquisition*. Routledge. https://doi.org/10.4324/9781410613349

Elordieta, G. (2003). Intonation. In J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (ed.), *A grammar of Basque* (277-314 or.). Mouton de Gruyter.

Europako Kontseilua. (2005). *Ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa*. HABE eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila (Jatorrizko lana 2001ean argitaratua). https://doi.org/10.54512/EEMB-2005

Europako Kontseilua. (2022). *Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua: ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluazioa – Liburu osagarria*. HABE. (Jatorrizko lana 2020an argitaratua). https://doi.org/10.54512/EEMBLO-2022

Euskaltzaindia. (2025). *Euskara batuaren ahozkera zaindua. Arau eguneratua*. https://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0087.pdf

Field, J. (2019). *Second language pronunciation assessment: Interdisciplinary perspectives*. Multilingual Matters. http://www.jstor.org/stable/10.21832/j.ctt1xp3wcc

Gaminde Terraza, I., Aurrekoetxea Olabarri, G.; Etxebarria Lejarreta, A., Garay Ruiz, U. & Romero Andonegui, A. (2014). *Ahoskera lantzeko argibideak eta jarduerak: Laguntzarako materiala: teoria eta praktika*. Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea.

Gonzalez de Txabarri, J.J., Elosegi, L., Agirre, H., Larramendi, A., Maiz, A. & Gonzalez de Txabarri, L. M. (2021). *Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculuma (HEOC).* (2. arg). HABE. https://doi.org/10.54512/HEOC-2021

Hahn, L. D. (2004). Primary stress and intelligibility: Research to motivate the teaching of suprasegmentals. *TESOL Quarterly, 38*(2), 201-223. https://doi.org/10.2307/3588378

Hirst, D., & Di Cristo, A. (ed.). (1998). *Intonation systems: A survey of twenty languages*. Cambridge University Press.

Hualde, J. I. (1991). *Basque phonology*. Routledge.

Hualde, J. I. (2003). Accent. In J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (ed.), *A grammar of Basque* (263-276 or.). Mouton de Gruyter.

Lyster, R. (2017). *Pronunciation pedagogy in second language classrooms*. Routledge.

Major, R. C. (2001). *Foreign accent: The ontogeny and phylogeny of second language phonology*. Routledge. https://doi.org/10.4324/9781410604293

Munro, M. J. & Derwing, T. M. (2006). The functional load principle in ESL pronunciation instruction: An exploratory study. *System, 34*(4), 520-531. https://doi.org/10.1016/j.system.2006.09.004

Odlin, T. (1989). *Language transfer: Cross-linguistic influence in language learning*. Cambridge University Press. http://doi.org/10.1017/CBO9781139524537

Patel, A. D. (2008). *Music, language, and the brain*. Oxford University Press. https://doi.org/10.1093/acprof:oso/9780195123753.001.0001

Pierrehumbert, J. & Hirschberg, J. (1990). The meaning of intonational contours in the interpretation of discourse. In P. R. Cohen, J. Morgan & M. E. Pollack (ed.), *Intentions in communication* (271-311 or.). MIT Press. https://doi.org/10.7551/mitpress/3839.003.0016

Txillardegi (Alvarez Enparanza, J. L.). (1984). *Euskal azentua*. Elkar.

Zubiri, E. & Zubiri, I. (1995). *Euskal gramatika osoa*. Didaktiker.